

BALIO PROPOSAMENA

Unai Wolfram, Manex Irigoien, Iker Kortajarena eta Joanes Etxeberriak taldea osatzen dugu.

Elikagaiak banatzea, sormena lantzea, sukaldatzea eta lehiatzea bateratuko dituen proiektu bat sortzekotan gaude. Gure proiektua Euskadiko eskualdeetako kooperatibetako produktu ekologikoak hautatu, astero saski bat sortu eta gure bezeroei saltzea izango da. Hauekin plater bat pentsatu etasortu beharko dute bezeroek, eta guri argazki/bideo bat bidali. Ondoren lehiaketa bat egongo da eta sortutako plater guztiak gure sare sozialetan partekatuko ditugu, irabazle bat aukeratuz eta sari bat emanez.

Hasteko, konpontzen duen lehen arazoa gure elikadura desegokia eta jaki prozesatuen kontsumo abusiboa da. Gure gizartean jende askok kontzietziarik gabe egiten ditu erosketak eta otorduak, guk, bertako janari ekologikoa eskuragarri uzteko esfortzua egingo dugu. Bestalde, jende askok jada prestatutako janaria kontsumitzearen ohitura du, eta hau normala da, izan ere, zeini ez zaio gertatu ez jakitea zer plater prestatu? Guk arazo horren aurrean soluzioa ekartzen dugu, izan ere, jaki batzuk ematen ditugu eta hauekin egin behar da otordua, sormena landuz eta motibazio batekin: saria

Enpresak zerbitzu aukera bakarra izango du eta hau, astero elikagai sorta bat izango da, saski batean bezeroen etxeetara eramango dena, guk errentagarritasun txiki bat ateraz. Produktu hauek guk hautatuko ditugu, eta baliteke beraien artean zerikusia izatea ala ez izatea. Eskualde bakoitzeko kooperatiba batean erosiko ditugu, lehen mailakoak eta osasuntsuak izan daitezen, gure helburuetariko bat hau izanik: elikagai osasuntsuekin plater gozoak egitea.

Barruan dauden produktuekin bezero bakoitzak otordu bat prestatuko du bere kreatibitatea erabiliz. Ideia eta mota guztietako platerak aterako dira, denak osasuntsuak eta nork daki beharbada batzuk oso sukaldaritza maila altukoak.

Plater hau sare sozialen bidez enpresari partekatu, guk publikatu eta sare sozial propioen bozka anonimoen bidez, asteko *Chefa* erabakiko da. Erabakia guk hartuko dugu hein batea, baina beste hein batean publikoak ere erabikiko du saretan jotako galdetegien bidez.

Irabazleak sari bat jasoko du, astero desberdina izango dena hauen artean, aste batez gure zerbitzua doan, beste kide edo ezagun batentzat doako saski bat dugu ideia bezala, baina enpresa handitzen eta zabaltzen doan heinean, sariak hobetzen joango dira, geroz eta bezero gehiago erakarrit.

Gure ustez arrakasta izango du. Batetik, erabilerraza izango delako, herritar guztientzat eskuragarri egongo dena. Edonork ahalko du parte hartu, gure webgunan erosiko duen saskia etxera bidaliko baitiogu. Sukaldaritzataz asko ez dakienarentzat aukera bikaina da mundu hontan murgiltzeko, eta, sukaldaritzaren kultura gustuko duten jendearentzat aukera paregabea da astero erronka berri eta ezberdin bat edukitzeko, eta duten talentua jendeari erakusteko, sari ezberdinak lortzeko aukera edukitzeaz gain. Gainera, neurri batean proiektu honek sukaldaritza munduan lan egitea pentsatua duen norbaiti ateak irekiko lizkioke.

Esan beharra dago, Euskadin ez dagoela kompetentziarik arlo honetan, eta gainera, Labore, elika eta arlo hortan sartuta dauden beste kooperatibekin elkarlanean arituko gintezke.

.....